


5. KANALAK

Gure enpresa gure bezeroekin zein beste enpresa batzuekin harremanetan jarriko da gure aplikazioan online argitara daitezten. Enpresa guztietan beharrezkoak dira erabiltzaile berriengana iristeko eta gure publikoarekin harremanetan jartzeko bideak. Horretarako, gure enpresak app-a hobetuko du balorazioen eta aplikazioan eskuragarri egongo den iruzkin-kutxa baten bidez, gure erabiltzaile guztiek balorazio bat eman ahal izan diezaguten eta gauzak hobetu behar dituztenak edo hobetzea nahi dutenak direla esan diezaguten. Hau da, gure aplikazioa Internet bidez helaraziko dugu gure bezeroei.



NOLA DESKARGATU?

Play Store (Android) eta App Store (iOS)



Gure enpresan komunikazio-bideak erabiliko ditugu gure aplikazioa ezagutarazteko eta bezeroak jakin ahal izateko zer egiten dugun. Kanal horiek ataletan banatuko ditugu: Marketing eta sare sozialak.

- **Marketina:** herri askotako busetako markesinetan egon ohi diren publizitate-hesiak erabiliko ditugu, eta, gainera, gure aplikazio iragarria Bizkaia osoko hainbat lekutan jartzeko asmoa dugu, pankarten bidez. Adibidez, 65 autobus geltokietan gure aplikazioaren iragarkia egoteko 10.000€ ordaindu behar izango dugu, baina gure baliabide ekonomikoak murrizak direnez, gehienez 20 autobus geltokietan ezarriko dugu iragarki horiek.

- **Sare sozialak:** VitalChallenge-k hainbat kontu egingo ditu sare sozialetan, hala nola X (lehengo Twitter), Instagram eta Tik Tok, guztiak @Vital_Challenge izenarekin. X-an, gure eguneratzeen eta egin diren erronken bideoen twittak jarriko ditugu (bideoaren egilearen eskubidearekin). Ondoren, Instagramen, X-ko bideotan bezala, gure erronken bideoak eta argazkiak jarriko ditugu gurekin lan egiten duten enpresekin elkarlanean. Azkenik, Tik Tok izango da gehien erabiliko dugun sare soziala, eta iragarkiak jarriko ditugu jende gehiagorengana iristeko (Bizkaitik kanpoko jendea barne), baita gure aplikazioaren bideo barregarriak ere. Gainera, gurekin batera lan egiten duten enpresek aukera izango dute haien sare sozialetan gure aplikazioa publizitatu eta promozionatzeko.



ZERTARAKO ERABILIKO DITUGU KANAL HAUEK?

1. Gure produktua pertsonak ezagutu ahal izateko. Iragarkiak eta sare-sozialak erabiliz
2. Enpresaren produktua ezagutarazteko. Product placement teknika erabiliko dugu eta bada publizitate-teknika bat non hedabide (gure aplikazioa) batean produktu, marka edo mezu bat txertatzean datza.
3. Aplikazioari balio-proposamen bat emateko, hau da, gure funtsezko helburua (euskera sustatzea edo bezeroak kirola egitea) ezagutarazteko.

Gure erabiltzaileek erronka edo desafio berri bat iradokitzeo aukera ere jarriko dugu sekzio baten bidez. Ondoren, bazkideen artean iradokizunak baloratuko ditugu eta aplikazioan dauden moduan edo aldatututa (gure iritziaren arabera) ezarriko ditugu.

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA:

Bezeroari emango diogun arreta telefono zenbaki bat izango da, eta 12:00etatik 20:00-k arte egongo da egunero erabilgarri (Aimarren arreta), batez ere asteburuetan, jendea denbora gehiago daukalako eta aisialdi gehiago dauka ere. Horrez gain, email bat izango dugu, edozein kexa, galdera edo zalantza egiteko.



Horrela, gure bezeroak ahalik eta erosoan senti daitezten eta aplikazioaren parte senti daitezten nahi dugu. Hori dela eta, gure bezeroek aukera izango dute edozein problema edo hobekuntza esateko emailen bidez eta ondoren, gure programatzaileak saiatuko da ahalik eta

hobekuntza gehienak egiten. Horrela gure bezeroek horrela aplikazioaren parte sentitzeko aukera izango dute.